



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

Mahastizaintza eta Enologia zerbitzua
Servicio de Viticultura y Enología

TXOSTENA: MAHASTIAREN EGOERA ARABAKO ERRIOXAN, 2016/06/08

Eguraldi bitxiko urtea daramagu: negua, urtarrila erdira arte, ohi baino beroagoa; hortik aurrera hotzago, baina ia izotzik gabe, nahiz eta neguaren azken txanpa horretan hozberoa batez bestekotik behera ibili. Elurra, halaber, eskas urtean zehar, urtarrila erdira arte ez zuen egin. Izerdia mugitzeko hain onuragarriak diren baldintza horiek berekin ekarri zuten mahastia behar baino lehenago mugi zedila, bai eta, Arabako Errioxan, hain zuzen ere Lapueblan, arbendolondoak urtarrilaren 15erako loratzen hastea, gutxienez, ohi baino 15 egun lehenago.

Izotzak ia ez du kalterik eragin. Ernamuintzearen hasierako zikloetan (mahastiarentzat une kritikoa) baino ez zen izan hozberoa 0°Cren azpitik, hain zuzen ere apirilaren 2an eta 3an. Orduan mahastia B2 (kimuan handituta) eta C (puntu berdea) egoeran zegoen. Gau horietako izotzak ez zuen beste kalterik egin, ez eta apirilaren 24tik 25erako gaukoak ere. Gau horretako izotzak ia antzeman ezin zitezkeen kalteak eragin zituen ernamuin eta kimuren baten, baina leheneratu egin dira besterik gabe. Zorionez, aurreratutako ernamuintzea mantsotu egin zen batez besteko hozberoak behera egitean.

Euria erruz egin du negu bukaeran eta udaberrian, batez ere, martxoan, apirilean, maiatzean eta, orain arte, ekainean. Maiatza bukaerako eta ekainaren hasierako azken bi asteotan euri erauntsiak izan dira; beraz, ura ez da berdin banatu leku guztietan. Lurzoruko ur erreserbak handiak dira, nahikoak mahasti zaharrek ere espero den bezalako uda bero eta lehor bati aurre egiteko.

Maiatza bukaeran, 29an hain zuzen ere, ekaitz erako ur eta kazkabar zaparrada izan zen. Zaparrada horrek kalte txikiak egin zituen, ezer garrantzizkorik ez, Guardiako eta Lapueblako aurkintza batzuetan.

Egun, eskualdeari gagozkiola oro har loratzea hasteko astebete falta dela, mahastiak, H egoeran (lore pinporta bereziak) daude. Ondorioz, fenologiari dagokionez, urte normala da.

Mahats mordo kopuruak eta haien neurriak erakusten du uzta ugaria izango dela.

Ia ekainera arte landatu da, eta ernamuintzea eta sail berrien egoera zuzena izan da.

Desniete lanak normalki egin dira eta espergurari eta big break-i (despuntea) ekiten zaie.

Gaitzak direla eta, ez dago nabarmentzekorik. Mahastiren batek erinosi sintomak erakusten ditu, sufrea gero eta gutxiago erabiltzen da eta. Era berean, klorosiak jotako zenbait mahatsondo ikus daitezke, batez ere drainatze eskaserako joera duten lursailetan (txertaka ez egokikoetan eta kare aktibodun maila handikoetan).

Datozen egunetan gorrina edo mildiu (Errioxa Beherean agertu da lehen orbana) eta zurin edo oidio gaitzetatik babestu behar dira mahastiak, kontuan izanik loratze aldian ez dela komenigarria tratatzea.

Lehen belaunaldiko sitsaren lehen hegaldiak dira, une horretan intsektu horrek ez du arazorik sortzen Errioxan.

Ez dago mahastiei eragiten dien beste izurrite edo gaitzen berririk.

Laburbilduta, gaur egun, mahastiak mahats ugari du, osasun egoera onean dago, eta ohiko fenologia sasoian murgilduta. Datorren hamabostaldiak, hau da, loratze eta hartze garaiak, erabateko garrantzia izango du mahatsaren garapenean.

Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzua
Guardia, 2016ko ekainaren 6a